

BIZIAN GORAK KURTSO BARRIA HASTEN DAU

***Hau da barri pozgarria
geuretzat iragarria!
Bizian Gorak hasten dauala
aurtengo kurtso barria.***

“Egun da Santimamiñe”

1

Hasi *doguna* amaitu:
Jesus *Jaunari* jarraitu.
Bizian Gora eztegu-*mahaira*
Berak *konbidatzen* gaitu.

2

Luze *joan* dira egunak,
noiz *ikusiko* lagunak.
Ikusi eta *uxatu* dira
gure *barruko* ilunak.

3

Ona *izaten* ta *on* egin
egin *daigula* ahalegin
Kristo maitatzen eta jarraitzen
jubilatuta be ekin.

4

Gazte *hil* ezik, zahartu *beharra*,
hau benetan lege zaharra!
Azkenerarte *hazten* joatea
ez da *jokabide* txarra.

5

Aurrerago ta *pozago*,
ai, hasi banintz *lehenago!*
Bizian Gora *baino* hoberik
guretzat *behintzat* ez dago.

6

Jaunak *dinost*: “Zatoz jarrai”
Eta *erantzun* deusot: BAI.
Berak egin nau *Bizian Goran*
Bera *lagun hartzeko* gai.

7

Esango deusut, laztana,
benetan gura *dodana*:
Urtez beterik *ta* beti *gazte*
bizi *gelditzen* jatana.

8

Jaunak egin deust konbitea,
nik *jarri* borondatea,
horretarako Bizian Gora
da *unibertsitatea*.

A.Martzel

